

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresaren merkatu-segmentazioa bi kontsumitzaile-taldetan oinarritu behar da nagusiki: aurreztea bilatzen dutenak eta jasangarritasunarekin konprometitu daudenak. Lehenengo taldea, aurreztea lehenesten duten kontsumitzaileek osatzen dute, eta hauek, batez ere, aurrekontu mugatuak dituzten pertsonak osatuko dituzte: familiak, ikasleak eta erosketen balioa maximizatu nahi duten norbanakoak. Talde horiek eskaintzak eta deskontuak aktiboki bilatzen dituzte, eta horregatik, gure aplikazioak merkeago lortzeko aukera eskaintzen duen bitartean, haien motibazio nagusia aurreztea izango da.

Bigarren taldean, berriz, jasangarritasunaren inguruan kontzienteak diren kontsumitzaileak sartuko dira. Gure aplikazioa ingurumena eta gizartea babesteko borrokan parte hartzeko prest dauden pertsonak zuzendurik egongo da, elikagaiak alferrik galtzearen eraginaren jabetuta. Talde horrek bereziki baloratzen ditu produktuen bizitza erabilgarria luzatzeko eta elikagaiaren zirkulazioa ahalbideatzeko soluzioak, ingurumenaren zaintza lehenesteko.



Gure xede-publikoa, nagusiki, 18 eta 45 urte bitarteko hiriko kontsumitzaileek osatuko dute, eta hauek teknologia berriekin eta online erosketekin ohituta daude. Talde honek, oro har, prestasun handiagoa du soluzio digitalak erabiltzeko, hala nola aplikazio mugikorren bidez erosketak modu eraginkorrean kudeatzeko. Horretaz gain, diru-sarrera ertainak dituzten kontsumitzaileak ere sartuko dira gure xede-publikoan, bereziki eskaintzak eta deskontuak bilatzen dituztenak, eta hauen konfiantzazko supermerkatuetan harreman hurbila eta erregularra izaten dutenak.



Hortaz, enpresa **merkatu nitxoan** kokatuko da, hau da, elikagaien sektorean deskontuak eta jasangarritasuna bilatzen dituzten kontsumitzaile zehatzak hartuko ditu. Merkatu nitxo honetan, bi segmentu nagusiek osatuko dute gure xede-publikoa: aurreztea bilatzen duten pertsonak eta ingurumenarekiko konpromisoa dutenak. Gure proposamena B2C (*Business to Consumer*) merkatu ereduan oinarritzen da, eta kontsumitzaileei zuzendutako balio erantsiko zerbitzuak eskainiko ditu, bereziki kontsumo arduratsuaren eta aurreztearen aldekoak.